

OHIKO OSOKO BILKURA 07/21

**UDALAK 2021eko UZTAILAREN 16an EGINDAKO OHIZ KANPOKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**ALKATEA:**

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.

**ALKATEORDEAK:**

Maria del Coro Echeverria Tolosa.

Oier Agirresarobe Lizaso.

**ZINEGOTZIAK:**

Martin Aldaya Olasagasti.

Alex Erdozia Igoa.

Ane Ibarburu Lizeaga.

Jose Antonio Cuesta Sole.

Felipe Etxeberria Agirretxe.

Blanca Alberro Aranzasti.

Mikel Gurutzeaga Zubillaga.

Lurdes López Gorrotxategi.

Ricardo Crespo Rubio.

2021eko uztailaren 16an ohiz kanpoko osoko bilera egin da telematikoki, arratsaldeko 15:30etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

**IDAZKARIA:**

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa .

**KONTU-HARTZAILEORDEA:**

Aitor Sarasola Salaberria.

**1.- SANTA MARIA MAGDALENA EGOITZA-ZENTROKO ADINEKOENTZAKO EGOITZA-ZERBITZUA ETA EGUNEKO ZENTROA EMATEKO ESKUMENA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIARI ESKUALDATZEKO ERABAKIA ONARTZEA, HERNANIKO UDALAK KUDEAKETA HORI EGITEKO DITUEN BALIABIDEAK BARNE; ESKUALDATZE HORREN BALDINTZAK ZEHAZTEN DITUEN HITZARMENA ONARTZEA, ETA ALKATEARI HITZARMENA SINATZEKO AHALMENA EMATEA. - Alkatea:** Arratsalde on, denei. Ez-ohiko plenoa ez-ohiko modu honetan, ostiral arratsaldean egitea ere ez ohikoa delako. Ikus daitekeen bezala, ez-ohiko pleno hau pleno bat egin daitekeen gutxiengo Cuorum-arekin egitea adostu dugu Udal talde guztiek. Ohiko bilkura batean daukagun ordezkari bera, proportzionalitate hori mantenduta egingo dugu gaurko plenoa.

Plenoak bi gai tratatuko ditu. Biak ere lotura dutenak. Zahar Egoitza eta Eguneko Zentroarekin zerikusia duten gaiak dira. Zuzenean lehenengo puntu honetako gai honetara sartuko gara. Tratatu duguna da Hernaniko Zahar Egoitza eta Eguneko Zentroaren eskumena hitzarmena sinatzea Aldundiaren esku gera daitezen bi zerbitzu hauek.

Historia egiteko eta kokatzeko nondik datorren hitzarmena, 2003ra egin behar dugu atzera. 2003An jada Hernaniko Udalak hitzarmen bat sinatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Hernaniko egoitza publiko hau itunpeko egoitza izan zedin. Gerora, 2008an Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen legeak bertan zehazten zuen lege honek Zerbitzu Sozialetako zein zerbitzu eman behar zituen erakunde bakoitzak. Horretan, besteak-beste zehazten zen Zahar Egoitza eta Eguneko

Zentroko zerbitzuak kasu honetan Aldundien eskumeneko zerbitzuak zirela. Udalen esku beste zerbitzu batzuk gelditzen ziren.

2008ko Gizarte Zerbitzuen legeak zioena aurrera eramateko 2014an Foru Arau bat zehaztu zen Gipuzkoako Foru Aldundian eta bertan Kabia, organismo autonomoa, sortu zuten pixkanaka hartzen joango ziren adineko egoitza eta eguneko zentro horiek kudeatzeko erakundea izango zena. Gaur egun martxan dagoen Kabia Foru Erakundea.

Guztira Gipuzkoako lurralde historikoan udalek kudeatzen ditugun edo genituen 16 egoitza publiko zeuden, pixkanaka-pixkanaka gainontzeko herrietakoak integrazio prozesu hori egin dutenak, eta gaur egun Hernaniko egoitza publikoa da bakarra Udal eskumena dena eta Udalak kudeatzen jarraitzen duena. Azkena integrazio prozesu hau egiten.

Integrazio prozesu honek urte luzeko lanketa darama atzean. Zerbitzu Sozialetako zinegotzi bezala bigarren legegintzaldia dut eta lehen egunetik, 2015etik bertatik bilerak etab. genituen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta baita Kabia erakunde autonomoarekin ere, hitzarmen hau, eskualdatze hau, dena prestatzen joateko.

Zer da gaurko hitzarmen honetan adosten duguna besteak beste? Batetik, bi zerbitzu hauen kudeaketa Aldundiari pasatzea eta bestetik, zerbitzu hauek aurrera eraman ahal izateko ondasunak ere pasatzea. Kasu honetan, egoitzaren instalakuntzak ere beraiei lagatzea izango litzatekeena. Instalazioaren lagapen bat.

Hitzarmen hau gainbegiratu da bai Idazkaritzatik, Idazkaritzaren aldeko txostena ere badauka; kontu-hartzaileak ere bere aldeko txostena egin du, nolabait honek ze inpaktu ekonomiko izan dezakeen Udalarentzat aztertuz. Eta, bestetik, Ondare teknikariak ere bere txostena egin du ondasunen lagapen honen inguruan. Berak ere aldeko txosten bat egin du eta azalduko dut ondasunaren lagapen hau zein modutan egingo den.

Zerbitzu publikoko ondasunaren mutazio subjektibo bat da. Termino tekniko bat da. Honekin ziurtatzen duguna da eta hitzarmenean hala jasota geldituko da, Udal egoitza pasatzen diogunean Foru Aldundiari, Foru Aldundiak egoitza hori edo instalakuntza horiek bakarrik erabili ahal izango ditu gaur egun ematen diren zerbitzu horiek emateko. Hau da, adineko egoitza eta eguneko zentroko zerbitzuak emateko.

Aldundiak nahiko balu zerbitzu sozialen barruan beste zerbitzuren baterako erabili egoitza edo instalakuntza hauek, Udalaren baimena beharko luke eta Udalaren adostasuna hori egin ahal izateko. Eta inolaz ere Aldundiak ezingo du instalakuntza hori Gizarte Zerbitzutik kanpoko beste zerbitzu bat edo beste zerbait egiteko erabili.

Beraz, bada doako lagapen bat, baina baldintzatua ere bai, Udalak nolabait ere kontrol bat izango duena edo ziurtatuko duena gaur egun ematen den zerbitzu horiek emango direla instalakuntza horietan.

Esan bezala, kontu-hartzaileak ere egin du bere txosten ekonomikoa, esanez traspaso hau Udalarentzat ekonomikoki onura bat izango dela. Izan ere, aipatu behar da, 2008tik jada legeak zehazten duenetik Foru eskumenak direla bi zerbitzu hauek, Hernaniko Udalak urtero defizit handi bat izan du zerbitzu hauek ondo mantentzen. Milioiez ari gara hitz egiten Hernaniko Udalak eta, Hernaniko herritarrek, oro har, jarri ditugunak. Egia da defizitaren gastuak kubritzeko diru-laguntzak

eman izan dituela Aldundiak, baina inoiz ez direla izan %100ekoak iaz arte; hori negoziatu genuen arte.

Zein zerbitzu dira eskualdatuko ditugunak hitzarmen honen bitartez. Esan bezala, adineko egoitza eta adinekoen eguneko zentroa. Sandiusterri eraikinean ematen diren gainontzeko zerbitzu sozialak, beste zerbitzuak, Hernaniko Udalak jarraituko du kudeatzen. Hau da, gizarte langileekin egiten ditugun zitak edo etxez etxeko zerbitzua edo apartamentu tutelatu eta etxebizitza tutelatu zerbitzuak Hernaniko Udalak jarraituko du ematen zuzenean. Berari baitagokio, lege horren arabera, zerbitzu horiek ematea. Eta, gainera, jarraituko dugu eraikin berean egiten. Orduan, eraikin oso hori Aldundiaren eta Hernaniko Udalaren artean konpartitua izango da. Bakoitzak bere zerbitzuetarako bere espazioa izango du. Eta hori ere Aldundiarekin lantzen ari gara.

Noiz gauzatuko da eskualdaketa hau? Esan bezala, lanketa luze batetik gatoz eta gaur da lanketa horren puntuetako bat. Gaur goizean Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeko Zuzendaritza Batzordean aho-batez onartu da hitzarmen hau sinatzea. Gaur plenoan onartzen baldin badugu ere, honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari emango zaio datorren astelehenean bertan, beraiek irailen Diputatuen Kontseilutik pasako dute erabaki hau, han berretsi egingo dute, ondoren urrian Batzar Nagusietara joango da gaia eta, dena ondo joango balitz, azaroaren 1ean gauzatuko litzateke eskualdaketa efektiboa.

Gaur hasten dugu prozesu, nolabait, burokratiko bat; baina gauzatzea azaroaren 1era arte ez da izango.

Honek zer ekarriko du? Honekin ere bai egoiliarrek eta bai familiak ere lasaitu nahi ditugu. Beraiei ere idatzi bat bidali diegu azalduz prozesua zein izango den. Azken batean, funtzionamenduan ez da aldaketa handirik izango. Kudeatuko duen erakundea arduratuko da, baina gaur egun egoiliarrekin lanean ari diren langileak berberak izango dira. Eta ez da aldaketarik izango.

Esan bezala, urte luzetako lanketa bat izan da Aldundia eta Udalaren artean egin dena eta lanketa horretan bai alde teknikitik eta bai politikotik ere, lehenetsun bat izan dugu: orain arte Hernaniko egoitzak izan duen kalitatezko zerbitzuak murrizketarik ez izatea eta kalitatezko zerbitzu horri eustea. Horrekin gogorarazi nahi dut bere garaian ireki genuen prozesua bertako langile publikoak finkatzeko egin genuen prozesua. Oposaketa batzuk egin genituen egoitzako langileak finkatzeko. Atzo bertan prozesu horretan bukatu zen. Izendatu ditugu gaur goizean langile horiek. Eta Hernaniko Udalaren ikuspuntua beti izan da eta trasladatu diegu Foru Aldundiari, zein garrantzitsua den, eta azken hilabete honetan ikusi dugu, horrelako egoitzak eta horrelako zerbitzuak gestio publiko zuzenekoak izatea eta langileak publikoak izatea. Ze beharrezkoak diren kalitatezko zerbitzuak izatea.

Gure ustez Hernanik zuzenean kudeatu dugunean hala izan da eta ez dugu zalantzarik Aldundiak ere hala egingo duela. Baina tira, gure esku dagoen guztia egingo dugu orain arte izan ditugu balorazio positiboak gerora ere jaso ditzan gure egoitzak.

Hau dena testuingurua jartzeko izan da. Ez dakit zalantzarik badagoen, norbaitek zerbait esan nahi ote duen...

Bozketara pasako gara zuzenean. Santa Maria Magdalena adinekoen egoitza eta eguneko zentroaren kudeaketa eta kudeaketa hori egiteko behar diren bitarteko horiek Gipuzkoako Foru Aldundiari traspasoa egiteko hitzarmena sinatzearen aldeko botoak? Aho-batez onartuta gelditzen da, beraz.



BOSGARRENA.- Beraz, lege xedapen hori betetzeko, ezinbestekoa da aipatutako zentroari buruzko eskumenaren egikaritzea Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdatzea, barruan direla Udalak, bai zuzenean bai sektore publikoko edozein tokiko erakunderen bitartez, egoitza zentroaren eta eguneko zentroaren kudeaketarako erabiltzen dituen baliabideak.

Horregatik guztiagatik, Hernaniko Udalak, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmen hau sinatzen dute, klausula hauen arabera

## KLAUSULAK

LEHENA.- Eskualdatuko den zerbitzua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen du Santa Maria Magdalena egoitzan pertsona adinduentzat ematen den egoitza zerbitzuaren eta eguneko zentroaren gaineko eskumenaren egikaritzea. Zerbitzu horren gaineko eskumenaren egikaritzea zuzenean egingo da edo, bestela, Kabia foru organismo autonomoaren bidez.

BIGARRENA.- Lagatzen diren ondasunak.

Aurreko klausulan xedatutakoa gauza dadin, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak eta Hernaniko Udalak Hitzarmenaren III. Eranskinean zehazten diren eremu eta guneak zein beraietan dauden altzari, ekipamendu eta materialak doan lagatzeko beharrezko izapideak gauzatuko dituzte. Lagapen hori jabari publikoko mutazio subjektiboaren bidez egingo da. Guzti hauek jarraian deskribatzen den ekipamentuaren parte dira.

Lagako diren eremu eta guneak kokatuta dauden ekipamenduak bere barne honako dependentziak ditu: "Santa Maria Magdalena" Adinekoen Egoitza, Eguneko Zentroa, Etxebizitza Tutelatuak, Sandiusterri Aretoa eta Hernaniko lehen arretako Zerbitzu Sozialen bulegoak.

"Santa Maria Magdalena" Adinekoen Egoitza eta Eguneko Zentroa Gipuzkoako Foru Aldundiari doan lagatzeko, aldeztu dagozkie izapide juridikoak egin behar dira eta baita ere erregistro izapideak, aipatu dependentziak udal zerbitzu publikora afektatuta geldituko direnetatik bereizi zein amankomunean izango dituzten eremuak zehazte aldera.

Deskribapen laburtua:

Santa Maria Magdalena Adinekoen egoitza eta Eguneko Zentroa, Hernaniko Sandiusterri kaleko 1ean kokatua.

Aipatu ekipamenduak Sandiusterri kaleko 1ean kokatuta dagoen higiezinak dituen solairu ezberdinetan kokatuta daude, Hernaniko 24.292 erregistro finkaren zati handiena hartuz.

Higiezinaren deskripzioa:

Eraikitako multzoa 2.967 m<sup>2</sup>-ko azalera duen orube batean dago eta muga egiten du iparraldean Sandiusterri kalearekin, hegoaldean Larramendi kalearekin, ekialdean Milagrosa kaperaren plazarekin eta mendebaldean 3 izena duen partzelarekin. Argi eta garbi bereizitako bi unitate ditu. Lehenengoa duela hogeita hamahiru urte inguru eraiki zen eta bigarrena, berriz, 2010. urtean, eta mendebaldetik lehenengoari erantsia dago.

Eraikin zaharrenak hormigoizko egitura dauka, blokez egindako fatxada eta aluminiozko arrotzeria. Bi hegalez osatuta dago eta hegal horiek igogailuaren kaxak eta eskailerek osatzen duen errotularen bidez lotzen dira.

Honela banatuta dago: bi soto-solairu, beheko solairua, Sandiusterri kaletik sarbidea duena, eta hiru solairu sestra gainean. Guztira 5.878,40 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia du, eta gutxi gorabehera 526 m<sup>2</sup>-ko

terraza.

Orain dela gutxi egindako bigarren eraikinak ere, egoitza zaharraren handitze gisa hartzen denak, hormigoizko egitura dauka, eta faktura desberdineko fatxadak, hala nola errezel-horma, kotegrana eta harrizko estalduradun fatxadak, eta aluminiozko arotzeria. Eraikin honek ere, aurrekoak bezala, sei solairu ditu eta 4.189,50 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia dauka.

Beraz, eraikitako multzoaren azalera eraikia 10.067,90 m<sup>2</sup>-koa da, gehi gutxi gorabehera 526 m<sup>2</sup>-ko terrazen azalera.

Hitzarmenarekin batera III. Eranskin gisa doa higiezinaren banaketa eta lagapenaren objektu diren dependentzia eta gunek zehazten dituen planoak.

Kargak: Kargarik gabe.

Finkaren erregistro datuak:

Donostiako 5. zenbakidun Jabetza Erregistroko Hernaniko 24.292 finka, 2214 Liburukia, Hernaniko 508 Liburua, 125. folioa.

Oraindik egiteke daude aipatu dependentziak udal zerbitzu publikora afektatuta geldituko diren etik bereizi zein amankomunean izango dituzten eremuak zehazteko izapide juridiko eta erregistro izapideak.

Katastroko datuak:

Erreferentzia katastrala: 8390028.

Finka katastrala: 3112417 K.

Higiezinaren kalifikazioa: Jabari publikoko ondasuna, Zerbitzu publikoari atxikita dagoelako.

Hirigintzako datuak: Hiri-lurzoru bezala sailkatutako partzela, ekipamendu komunitarioen sistema orokorra (E.00), laguntzarako ekipamentu komunitarioa (e.01), Hernaniko AASSTBeko Hirigunea Hegoa hirigintza eremuko Lizeaga azpieren kokatzen da.

Balorazioa: Zehaztu gabe.

Higiezinaren doako lagapena egiteko kontuan hartuko da zer xedatzen duten ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 8., 109., 110. eta 111. artikuluek eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondasunari buruzko uztailaren 9ko 8/1996 Foru Arauko 36. artikuluek.

Lagapena honako baldintzetan egingo da:

a) Hernaniko Udalak jabari publikoko mutazio subjektiboa onartuko du, Santa Maria Magdalena Egoitza eta Eguneko Zentroari dagokion ekipamentua Gipuzkoako Foru Aldundiari doan lagatzearen bidez.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiak ekipamentua atxikiko du gizarte zerbitzuetara, eta ezingo du beste helburu desberdinetarako bideratu. Ekipamentuaren egungo erabilera —adineko pertsonentzako egoitza eta eguneko zentroa— aldatu eta gizarte zerbitzuen arloko beste erabileraren bat ezarri nahi izanez gero, Hernaniko Udalaren adostasuna beharko da.

c) Ekipamentua b) puntuan aipatu den helburua ez den beste zerbaitetara bideratuz gero, Udalaren baimenik gabe gizarte zerbitzuen arloko beste erabilera batetara bideratuz gero, edo jarduera bertan behera utziz gero, ondasunaren lagapena ezezteko prozesuari ekin diezaike Hernaniko Udalak, ondasun eta osagarriak barne.

d) Ekipamentuaren lagapena formalizatzearen ondoriozko gastu guztiak eta baita, gertatuz gero,

ezezte formalizatzeko gastuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu.

e) Lagapena gauzatu ahal izateko, Hernaniko Udalak bederatzi (9) hilabeteko gehieneko epean izapidetuko du doako lagapen espedientea, hitzarmen hau sinatzen den datatik aurrera.

Adinekoen Egoitza eta Eguneko Zentroa Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde eskualdatzen den bitartean —gehienez ere bederatzi (9) hilabeteko epean—, Hernaniko Udalak eremu horiek doan erabiltzeko baimena ematen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta horrek onartzen du, finkaren erabilera, aipatu helburuetarako, hitzarmen honen zazpigarren klausulan ezartzen den eskualdaketa eraginkortasun datatik aurrerako ondorioekin.

Altzari, ekipo eta inbentariatu daitezkeen materialak eman eta jaso izanaren aktak sinatu beharko dira gehienez bederatzi hilabeteko epean (9), hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera.

**HIRUGARRENA.**- Eskualdatzen diren eskubideak eta betebeharrak.

1.- Aldundiak zerbitzuaren gaineko eskumenaren egikaritza bere gain har dezan, Hernaniko Udalak eta Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdatzen dizkiote sinatuta dituzten eta hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean dauden kontratu eta bestelako negozio juridikoak, eta Gipuzkoako Foru Aldundia subrogatu egiten da horien guztien ondoriozko eskubide eta betebeharretan.

Subrogazioak soilik eragiten die lehenengo klausulan adierazitako zerbitzuaren gaineko eskumena egikaritzearen ondoriozko eskubide eta betebeharrari.

I. eranskinean jaso da Hernaniko Udalak eta Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean dituzten kontratuen zerrenda.

Hernaniko Udalak eta Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak honako hauek helarazi beharko dizkiote Kabia foru organismo autonomoari, dagokion enpresari eskatu ondoren:

- Kontratututako zerbitzuan lan egingo duten langileen zerrenda.
- Gizarte Segurantzaren Alta Emanda dauden Langileen Txostena, dagokion Kotizazio Kontuaren Kodean, kontratari atxikitako langileekiko.
- Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean edukitzearen ziurtagiria.
- Kontratatutako edo azpikontratatutako langileen soldaten ordainketak egunean edukitzearen frogagiriak.
- Enpresa jardueren koordinazioa (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua).

2.- Halaber, eskualdatutako zerbitzuko dokumentu eta espedienteak eman beharko dira hilabete bat bete baino lehen zazpigarren klausulan ezarritako eraginkortasun datatik aurrera.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kabia foru organismo autonomoak ez dute izango ardurarik Hernaniko Udalak edo Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak, eskualdatzearen xede den zerbitzuari dagokionez, hitzarmen hau sinatu aurretik gauzatu dituzten administrazio egintzen ondorioz sortu litekeenaren gainean. Administrazio egintza horien ondorioak, baita ekonomikoak ere, Hernaniko Udalak edo Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak jasango dituzte.

**LAUGARRENA.**- Eskualdatutako zerbitzuari atxikitako langileak.

Hitzarmenaren eraginkortasun egunean eskualdatuko den zerbitzuari atxikita dauden funtzionarioak Hernaniko Udalak edo Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak kontratatutakoak, Kabia foru organismo autonomoaren menpe egotera pasako dira, organikoki nahiz funtzionalki, aipatutako datan dituzten eskubideak mantenduz indarrean dagoen araudiaren arabera.

II. eranskinean jaso da eskualdatzen diren langileen zerrenda, honako informazio honekin: lanpostu zerrendako kodeak, lanpostuen izena, izen-abizenak, izendapen mota, egoitzako antzinasun data, jaioteguna, sexua, egiaztatutako euskara maila eta urteko ordainsari gordina.

Hernaniko Udalak edo Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak honako datu hauek helarazi beharko dizkiote Kabia foru organismo autonomoari, eskualdatuko diren langileei dagokienez:

- Gizarte Segurantzaren Alta Emanda dauden Langileen Txostena, dagokion Kotizazio Kontuaren Kodean.
- Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean edukitzearen ziurtagiria.
- Soldaten ordainketak egunean edukitzearen frogagiria.

Langileen eskubideak bermatzeko eta kudeaketa egokia egiteko, aurreko paragrafoetan aipatutako datu eta agiriez gain, Hernaniko Udalak eta Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak konpromisoa hartzen dute helaraziko dizkietela Gipuzkoako Foru Aldundiari edo Kabia foru organismo autonomoari eskatu ditzaketen agiri osagarriak.

**BOSGARRENA.- Araubide ekonomikoa.**

1. Ahal bezain laster eta gehienez hilabete bat bete baino lehen zazpigarren klausulan ezarritako eraginkortasun datatik aurrera, Hernaniko Udalak edo, hala badagokio, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak aurkeztuko diote Gipuzkoako Foru Aldundiari honako informazio hau: 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izandako diru-sarrera eta gastuen zerrenda, betiere faktura eta gainontzeko frogagiriez lagunduta.

Likidazioa aurkezten denean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Hernaniko Udalak edo, hala badagokio, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak haren izenean jasotako eta egindako ordainketen likidazioa egingo du.

Likidazioa onartzen duenean, egindako transferentzien zenbatekoak gainditu egiten badu ordaindutako fakturen eta jasotako ekarpenen arteko saldoa, Hernaniko Udalak edo, hala badagokio, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak hilabeteko epean itzuliko diote Gipuzkoako Foru Aldundiari gehiegizko zenbateko hori.

Aldi berean, aurreko paragrafoan aipatutako saldoa Hernaniko Udalaren edo, hala badagokio, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundearen aldekoa bada, Gipuzkoako Foru Aldundiak hilabeteko epean ordainduko die.

**SEIGARRENA.- Araubide juridikoa.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak zuzenduko ditu haren interpretazioa eta garapena.

Hitzarmena interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen auziak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ezagutza eta eskumenekoak izango dira.

**ZAZPIGARRENA.- Eskualdatzearen eraginkortasun data.**

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunaren hurrengo hilabeteko lehen egunean. Data hori ez da kontuan izango Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021eko urtarrilaren 1eko datarekin hartutako betebeharr ekonomikoen kasuan (bosgarren klausulako lehenengo puntuari dagozkienak).

Ados daudela adierazteko, hiru alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, hiru aletan eta orri guztietan, goian adierazitako datan eta egunean, eta ale bana hartu dute».



Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 203. eta 204 artikuluetan xedatutakoa betez ziurtagiri hau egiten dut dagokion akta onestearen ondoriozko terminoak gorabehera, horrela ezartzen baitu aipatutako erregelamenduaren 206. artikulua.

Hurrengo orrialdeotan, hitzarmenaren testua eta eranskinak gehitu ditut idazkaritzaren zigiluaz, neuk sinatuta eta hitzez hitz, horrela aztertu baizituzten Hernaniko Udaleko zinegotziek 2021eko uztailaren 16an osoko bilkura berezian erabakia ahobatez hartu aurretik.”

**2.- HASIERAKO ONARPENA EMATEA HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK ORGANISMOA AUTONOMOA DESEGITEARI, 2022KO URTARRILAREN 1EKO ONDORIO JURIDIKOETAKO DATAZ. - Alkatea:** Bigarren puntuak ere zerikusi zuzena du aurrekoarekin. Hernanin zerbitzu sozialen abaniko osoa edo zerbitzu guztiak kudeatzeko Udalaren organismo autonomo batekin egin du orain arte. Bere garaian egoitza etab. kudeatzeko Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintza Patronatua gerora Udaleko Zerbitzu Sozialak izena aldatu geniona eta ikusten dugu Udalean badaukagula efizientziaz jarduteko betebeharra eta egoitza behin eskualdatzen denean... (Arazoak daude konexioarekin).

**Alkatea:** Jarraitu egingo dut. Ezin bada, Koro, zuk hartu hitza. Baina tira, esaten ari nintzena, aurreko gaiarekin lotura zuzena daukana, hemen proposatzen dena da orain arte Zerbitzu Sozialak kudeatzeko garai batean sortu zen organismo autonomi hori bai egoitzak kudeatzeko lan handia zuelako eta mugimendua eta kudeaketa handia zuelako. Gaur egun ikusten dena da egoitza traspasoa eginda eta Aldundiak beregain hartuta, ez daukala zentzurik organismo autonomoa mantentze horrek, efizientzia ikuspuntu batetik.

Gaur Zuzendaritza Batzordetik pasa dena da eta proposatzen da bertan behera uztea, desegitea erakunde autonomoa. Azaroaren 1etik aurrera egoitzaren traspasoa gauzatzen denean Udal zerbitzu sozial guztiak eta betebeharrak guztiak zuzenean Hernaniko Udalak hartzea eta juridikoki efektu guztiekin 2021eko abenduaren 31n organismo autonomoa desegitea.

Ulertu da?

Ados. Ez dakit honen inguruan esateko zerbait ba al dagoen.

Bale. Bozketara pasako gara. Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak organismo autonomoa desagertaraztearen aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.

“Hernaniko Udalak adinduentzako egoitza-zentroko zerbitzua eta eguneko zentroko zerbitzua eskaini ditu 30 urtez zuzeneko kudeaketaren bitartez eta izaera deszentralizatuz.

Santa Maria Magdalena Egoitzaren eta Eguneko zentroaren kudeaketa Kabia Foru Erakunde Autonomoari eskualdatuko direnez, komenigarria da eraginkortasun eta efizientzia administratiboaren ikuspegitik Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakunde autonomoaren desegiteko erabakia hartzea, 12/2014 Foru Araua eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 22. artikuluko 2. apartatua betetze aldera.

Horiek horrela, zera erabaki da aho batez:

LEHENA. Hasierako onarpena ematea Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakunde autonomoa desegiteari, 2021eko azaroaren 1eko ondorio juridikoetako dataz.

BIGARRENA. Hasiera batean indargabetzea Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakunde autonomoaren estatutuak.

HIRUGARRENA. Espedientea jendurrean jartzea hogeita hamar egun baliodunetz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz; interesdunek egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten.

LAUGARRENA. Aurrerantzean zerbitzuak Hernaniko Udalaren Zerbitzu Sozialak Sailaren bidez kudeatzea.

BOSGARRENA. Korporazioak hartzea erakundearen oinordekotza unibertsala, eta udalak berak desegindako erakunde autonomoaren eskubideak eta betebeharrak bere gain hartzea.

SEIGARRENA. Formalki iraungitatz jotzea udalak erakunde autonomo horren alde egindako ondasun-lagapena edo atxikipena, eta udalak erakunde autonomoaren jabetzako ondasun guztiak bere gain hartzea, eta udalaren ondasun eta eskubideen erroldan sartzea; horrek ez du eragotziko ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiari doan lagatzea eskualdatze-hitzarmenean doan laga behar zaizkiola jasotzen diren ondasunak.

ZAZPIGARRENA. Espresuki eta formalki onartzea tokiko erakunde autonomo horren aurrekontuko saldo hartzekodun edo zordun guztien txertaketa udal aurrekontuan; eta udala guztiz subrogatzea eskubide onartu, likidatu eta kobratuetan edo kobratzeke daudenetan, eta hartutako obligazioetan, likidatuta eta ordainduta daudenetan edo ordaintzeke daudenetan; eta arlo horretatik eratorritako guztiaz erantzutea akordio hau indarrean sartzen denetik aurrera; horrek ez du eragotziko aurrekontuan egin beharreko mugimendu, ohar edo eragiketak egitea, tokiko erakunde autonomoaren aurrekontu osoa likidatzeko ondorio juridikoak sortuko dituen datan.

ZORTZIGARRENA. Alkateari ahalmena ematea Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakunde autonomoa desegiteko espedientearekin zerikusia duten akordioak har ditzan.

BEDERATZIGARRENA. Erabakiaren berri ematea espedientea bukatu ondoren Autonomia Erkidegoari, Estatistika Institutu Nazionalari, Sektore Publikoko Erakundearen Inbentarioari, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroari, Gizarte Segurantzari, eta gainerako erakundeei, egoki iritzitako ekintzak egin ditzaten.

HAMARGARRENA. Akordio hau behin betikoa izango da jendurreko izapidean ez bada alegaziorik aurkezten."

Ez-ohiko deialdi hau modu ez ohiko honetan eginda, ez-ohikoa denez eskaera eta galderetako tarterik ez dago. Uztailaren bukaeran ohiko plenoa egingo dugu eta orduan izango dugu beste gaiak tratatzeko tartea.

Eskerrik asko denei ordutegi honetan eta modu hauetan plenoan parte hartzeagatik. Hurrena arte.